



BOST SAGAR TXIKI



LIBURUAREN FITXA

Yusuke Yanezu. 5 sagar txiki. Tarttalo, 2011

AURKEZPENA

Liburu honekin batera, jolasean arituko gara: orain ezkutaketa, horren ondoren “kuku, non nago?” Horren jarraian: “Ziur al zaude hori bost zenbakia dela?”

Izan ere, gaur aurkezten dugun liburuan jolaserako aukera ugari aurkituko ditugu. Pentsa dezagun, adibidez, zenbaki bakoitzaren formak beste gauza bat ekartzen digula gogora. Orriz orri egin ahal izango dugu hau, tolesdurak ezkutatzeko duena bistaratzen dugunean. Pentsa dezagun baita ere, tolesdura bakoitzaren azpian animalia batek jaten digula sagar bat. Zenbat geratzen dira? Zenbatu dezagun orain aurreraka, gero atzeraka, binan bina, gehi bat...

KONTAKETA

- Liburu honetan, bat eta bost zenbakien seriea aurkituko dugu. Zenbaki bakoitzaren ondoan, hari dagokion adineko sagar kopurua.
- Baina zenbaki bakoitzak sorpresa txiki bat ezkutatzeko du, tolesduraren azpian. Zer gordetzen du 5ak, 4ak...
- Gordeta dagoen animaliak sagar bat jaten du aldiro, zenbat geratzen dira?
- Izan ere, ikusten dugun guztia ez da beti erreala izaten. Ikusmenak sortzen dituen paradoxak ere dastatuko ditugu umorez, liburu honetan.

PROPOSAMENAK LUZATZEN

- Liburua ikusi eta gozatuko dugu: tolesdura bakoitzak zer ezkutatzeko duen igarri, hurrengo zenbakiaren azpian dagoenaren inguruko hipotesiak egin...
- Zenbakien formekin jolasean ibiliko gara. Zeinen antza du bata, biak...
- Buruz, zenbakien kontaktak burutu: batuketak, kenketak, saltoka kontatuko dugu, orain atzeraka...

PROPOSAMENAK ZEHAZTEN

- Zenbaki bakoitzaren inguruko proposamen berriak burutuko ditugu. Dakizkigun kantak: “Bat eta bi, hiru eta lau...” (Jolas eta Molas); kontaktak jolasak: “Bat, Martin parrat...” Bularretik Mintzora, “Bat eta bi, hiru eta lau, amak uretan sartu nau...” Jolas eta Molas.
- Zenbaki bakoitzaren forma antzekoa duten gauzak aurkitu, (bat makila; bi, ahatetxo bat; hiru, sardetxo bat; lau, aulki bat; bost, suge bat...